

ODOLKIAK ORDAINETAN

Juan Mari Zunzunegi

Z

anbuluka egin zuen gertueneko bizilagunarengana eramango zuen bidexka bihurria, zanbuluka, noiz irauliko

zihoan gurditzar bat bailitzan.

- Nolatan hemen, Pedro? -galdetu zuen etxeko nagusiak harrututa.

- Txerria hiltzeko aitzo txukunen bat izanago duzulakoan etorri naiz.

- Aiztoa? Bai, nahi adina. Josepa! Ekar iezaiguzu kafe bana!

Etorri berria sukaldera sartu bitartean, aitzoaren bila joan zen etxeko nagusia. Ukuilu ondoko gelatxo batean sartu zen,

estutu ziola ohartzean, ezker-eskuinera nahiz ipar-hegoaldera astindu zuen burua. Baina ahaleginak orduan eta gehiago estutu zuen.

- Eutsi txerri madarikatu honi! -agindu zuen Pedrok gizakiarena baino gehiago trumoiarena zirudien ahotsaz.

Animaliaren hanketara jauzi egin zuten beste biek. Astinaldi bortitzak jo zituen txerriak, baita gizon bat lurrera bota ere.

- Altxa hadi, Tomas! Ostia! Heldu iezaizki atzeko hanketatik! -Pedrok, kezkatu.

Tomasek, esaneko, esan bezala egin zuen. Sokari tira egin zion gogor asko Agustinek; erremolatxa-kolorea hartu

zen; baina aitzoaren metal garbian ispilu batean bezala Herioa ikusi zuelako-edo, sekulako astinaldiak lurrera bota zuen Agustin, baita Pedrori eskumuturrean hozka egin ere. Ulu batez bazterrak zartatu zituen Pedrok; minaren minez zimurtu egin zitzaion aurpegia.

- Txerri madarikatu-puta halakoa! Ostia! Ia eskumuturra jan zidak nazkagarri-zikin honek!

Odol-tantaz ziprztindu zen mahai ondo.

- Eutsi txerri ostia honi! Eutsi, nik odolustuko diat eta!

Lurretik aiztoa hartu eta ondo kostata, baina azkenean: txerriaren eztarria zula-

- Babarrunak odolki eta hirugiarrarekin. Ez du erregeak, ez, honela jango! -eta al-gara zaratatsu batek baserriko zutabe zaharrak dardarka jarri zituen.

Sekula santan jan ez balu bezala hasi zen Pedro, ezpain-ertzetik jana zeriola, txerria baino okerrago.

- Ostia! Piper lakatzen batek urratu dit ez-tarria! -esan zuen Pedrok. Barreak ahoa ireki zion, non txiki-txiki egindako odolki-hondarrak jarri zituen begi-bistan. Berak ez zekien, ordea, ustez piperra zelakoan aitzoaren punta irentsi zuela.

Platerkada bete babarrun buka bezain pronto, beste bat eman zieziaion agindu zion emazteari, zeinek, esaneko, beste



Kristina FERNANDEZ

eta bertako kaxoi bakarretik egunkari-orritan bildurik zeukan aiztoa atera. Begi-bistakoa zen berri-berria zela; bonbilaren argitasuna zela medio, hara zer-nolako distira bota zuen; maltzuraren keinua zirudien.

II

Txerriaren kurririk ukuiluko bazterrak urratu zituzten; heriotza-unea usnatu zuela esan zitekeen. Haizearen alde banatan zeuden gizasemeak; txerria, berri, haien erdi-erdian. «Sagua banintz», pentsatu zuen gizarajoak, bai baitzekien modu hartara zirrikituren batetik alde egingo zukeela.

Alferrik, ordea: Agustinek metro eta erdiko soka zeraman, zeinekin animalia-oren lepoa estutu zuen. Zer edo zerk lepoa

zuen Joxe aurreko hanken indarra menpean hartzen saiatzen zen bitartean.

- Hor, hor! Txerri puta halakoa! Eutsi hor! Eutsi, nik hankak lotu bitartean!

Halaxe, entzumena pitzatuko zukeen kurririka artean Pedrok hankak lotu zituen txerriari, zeinek Herioaren itzala antzemanda hor nonbait, orduan eta urdu-riago bota zituen kolpeak.

- Gurea duk! Ostia! Jaso dezagun mahaira! -esan zuen Pedrok, begietan pozaren txinpartek dantzatzen zutela.

Neke handiz jaso zuten txerria. Mahaiaren kexua entzun zuten, bertan hautsiko ote zitzaizen pentsatzeraino.

- Tira orain fuerte, Agustin! -mahai azpitik bizilagunak utzitako aiztoa atera zuen, eta:

Txerriaren eztarria zulatzen saiatu

tzea lortu zuen. Iturri hark, bat-batean, odolez bete zuen ontzia.

III

- Ikusten al duzu, Josepa?! -esan zuen senarrak haserre baino gehiago minduta.

Aiztoari punta falta zitzaion.

- Hara! Berria zen aiztoa eman eta... Ba ote dago eguzki honen azpian Pedro baino gizon zabarragorik, gero?! Hutsa, honen berri eman balit sikiera!

IV

Mahaiburuan jarri zen Pedro, ohi bezala. Baratzeko tomateak baino gorriago zeuzkan masailak.

- Ea, bada, nolako odolkiak atera diren.

- Oso itxura onekoak dira, behintzat -esan zuen emazteak, harro.

platerkada babarrun jarri zion; baita odolki-puska on bat ere. Txerriak aspillean bezala, halaxe bukatu zuen hura ere.

- Ostia!, oraintxe jarri nahiz kaka-pila egiteko moduan -gustura, irribarreak aurpegia lehertzeaz jarririk ziola.

Gutxi barru, ordea, aieneka batean hasi ez zen, bada. Sabelera bota zituen eskuak bat-batean, eta tolestu, aizkorakadaz aizkorada enbor batek egingo zukeen modura. Ahoa zabaldu zuen: azken hitzek odolletan blai jo zuten lurra.

Juan Mari Zunzunegi Garmendia.

1969an Ordizian jaioa, Gaintzan bizi da. Biologia, Historia eta Filosofia ikasitakoa. 1996an ipuinen Kimetz saria Ordizian. 2005ean Idazle eskolako I Beka-saria.